

Materialak eta gorputzeko memoriak



Instalazio bat osatuko dugu gure gorputz-esperientzietatik ateratako eskulturekin. Hainbat teknika erabilia, espazioarekin, materialekin eta gorputzekin esperimentatuko dugu geuregan modu kolektiboan pentsatzeko, bizipen indibidualetatik abiatuta.

Helburuak

- Amaia Graciaren obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Geure gorputzen eta gorputz-esperientzien botere poetikoaren inguruan hausnartzea.
- Materialekin eta hainbat teknikarekin (bideoa, collagea, eskultura, soinua) esperimentatzea.
- Hezkuntza emozionalaren bidez empatia lantzea.

Aipamenak

Artistak:

- Amaia Gracia Azqueta:

<https://www.noticiasdenavarra.com/cultura/2019/11/16/poetica-materiales-2337320.html>

- June Crespo: *Cosa y tú*: <https://junecrespo.com/works/cosa-y-tu-galeria-carreras-mugica-bilbao-2015/>

- Rebecca Horn: *Finger gloves, Unicorn, Pencil Mask, etc.* <https://www.wikiart.org/es/rebecca-horn/>

Bideo- eta soinu-edizioko programak:

<https://davinciresolver.org>

https://es.cyberlink.com/index_es_ES.html

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Amaia Graciaren lana ikusi, eta galdera hauek botako ditugu:

- Zer esaten diogu «gorputza»?

- Materialen batekin identifika dezakegun zer ezaugarri ditu gorputz batek? (gorputz biguna, zimurtsua, bizia, hezea, hotza, harroa...).

2. Gutxienez 15 ezaugarri zerrendatuko ditugu, eta bakoitzarekin erlazionatutako 3 material aipatuko. Irudiz osatutako mapa bisual bat sortuko dugu.

3. Gure gorputza oso presente izan dugun (eguneroko pentsamenduetan, sentimenduetan...) bizitzako une bat ekarriko dugu gogora. (Adibideak: hortz bat erori zait eta izugarri gustatzen zait mihia zuloan sartzea; betaurrekoak jarri dizkidate eta pozik nago oso ongi ikusten dudalako; odola atera didate eta beldur handia izan dut; gogokoen ditudan prakak txikiegi geratu zaizkit; hatz bat hautsi dut eta ezin ditut oinetakoak nire kabuz lotu). Lagun bati zuzendutako eskutitz batean idatziko dugu.

4. Norbaitek ikaskideekin partekatu nahi badu eskutitza, ahoz gora irakur dezake. Ondoren, eskutitzak soka batetik esekiko ditugu pintzekin, ikasle guztiak irakurtzeko moduan; nahi duenak kontsultatu ahal izango ditu, eta talde-inspirazio gisa balioko dute.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Lauko taldeetan jarriko gara, eta pieza batzuk sortuko ditugu kontatutako pasarteetan eta materialen mapan oinarrituta. Jarraibide hauek erabil ditzakegu:

1. pieza- Azala berritzen dugula erakusten duen bideo bat (azalean itsatsitako kolarekin, janariarekin, arroparekin...).

2. pieza- Gorputzeko atal baten molde edo irudikapen bat: igeltsuarekin, buztinarekin, ogi-mamiarekin, zinta itsaskorarekin, oihalekin, objektuekin...

3. pieza- Gorputzaren funtzionamendua hobetzen edo zailtzen duen tramankulu bat: bizkarrean hazka egiten lagunduko didan tresna bat, zutik egonda eseri ahal izateko protesi bat, besoa hautsita izanda zapatak lotzea...

4. pieza- Geure buruarekin identifikatzen ditugun materialek edo elementuek egiten duten soinuaren grabaketa bat: euriaren soinua, izotz-puskak talka egiten, putzu batean salto egitea...

5. pieza- Gorputza eraldatuta edo eraldatzeko bidean erakusten duen argazki edo collage bat.

2. Ikastetxeko toki bat bilatuko dugu sortutako piezak kokatzeko eta gure gorputzaren historia kontatzeko.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Ikastetxean jarritako instalazioen mapa bat egingo dugu, eta ondoko ikasgeletan banatuko. Bisita gidatu bat egiteko hitzordu bat adostuko dugu.

2. Afixa erraldoi bat egingo dugu, prozesuan bizitaketatik ateratako galdera batekin (adibidez, "Noiz jabetu zara zure gorputza aldatzen dela?") eta ikastetxeko sarreran esekiko dugu. Beste aukera bat: ikastetxean zehar afixa txikiak itsastea.